

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure aparkaleku-app-ak behar bezala funtziona dezan, baliabide garrantzitsu batzuk behar ditugu. Hauek dira proiektua martxan jartzen lagunduko diguten aktibo nagusiak:

1. Aplikazioaren garapena: Garrantzitsuena app bat ondo eginda edukitzea da. Programatzaileak edo app-ak garatzeko ezagutzak dituen norbait behar dugu, plataforma sortzeko eta mantentzeko. App-ak azkarra izan behar du, erabiltzeko erraza eta, batez ere, denbora errealean aparkalekuak erakusteko beharrezkoa.

2. GPS sistema eta mapak: Gure app-ak GPS eta mapa sistema on batera konektatuta egon behar du, hala nola Google Maps edo antzeko zerbitzu batera. Hori funtsezkoa da erabiltzaileek eskuragarri dauden lekuak denbora errealean ikusteko eta aparkalekuak erraz aurkitzeko.

3. Datuak denbora errealean: aparkalekuen erabilgarritasunari buruzko datu eguneratuak ere behar ditugu. Horretarako, lankidetzan aritu gaitezke Bilboko Udalarekin edo aparkalekuak kudeatzen dituzten enprekin, informazio hori eman diezaguten.

4. Marketina eta publizitatea: Jendeak gure app-a ezagut dezan lortu behar dugu; beraz, beste funtsezko baliabide bat marketin-kanpainak egiteko ekipo bat edo tresna batzuk izatea da (sare sozialetan bada ere), eta ahalik eta erabiltzaile gehienengana iristea.

5. Euskarri teknikoa: Azkenik, laguntza-sistema bat behar dugu erabiltzaileei laguntzeko, aparekin edo erreserbekin arazoak badituzte. App-eko txat bat edo zalantzei erantzuteko posta-helbide bat izan daiteke. Gainera, txat honen bidez, erreserbatutako aparkaleku baten bidegabeko jabetzea salatu ahal izango da.

Hauek dira gure ideia errealitate bihurtzeko eta espero dugun bezala funtzionatzeko behar ditugun aktibo garrantzitsuenak.